

#Zibersegurolak



Lagundu zure seme-alabak Interneten erabilera egokia egiten

Basque CyberSecurity Centren (BCSC) hezkuntza eta alfabetatze digitalaren alde egiten dugu, baita zibersegurtasunaren alde ere, familia guztiek Interneten aurki daitezkeen erronkak ezagutu, mehatxuak saihestu eta horien aurrean jardun dezaten.

Hori dela eta, "[Ziberrean, Zibersegurola](#)" kanpaina jarri dugu martxan aniztasunetik, tolerantziatik eta haurtzaroan eta nerabezarotik teknologia berrien zibersegurtasunari buruz sensibilizatzeko. Kanpainia abian jartzeko hainbat erakunderen laguntza dugu; besteak beste, [PantallasAmigas](#), [Hirukide](#), [DBEB](#), [Kristau Eskola](#) eta [Twitter](#). Bihar, martxoaren 19a, Aitaren Egunaren harira, "**Ahaidetasun digital positiboa**" gaia hautatu dugu eta zenbait aholku emango ditugu guraso guztiei laguntzeko, seme-alabekin testuinguru digitalean goza dezaten.

Pandemiak eragindako murrizketek Internetetikiko eta teknologiarekiko harremana birdefinitu dute, eta aldaketak eragin dituzte familien arteko dinamikan, baita norbanakoaren zein dinamika sozialetan ere. EHUko [EU Kids Online Spain](#) ikerketa-taldeak pandemia baino lehen egindako txosten batek zenbait gako ematen zituen:

- Guraso gehienak (%57) Interneten esperientzia handiko erabiltzaile direla aitortzen dute, baita urte askotan zehar erabili eta erabiltzen dutela ere.
- Beren seme-alaben hezkuntza digitalean planteatzen zaizkien dilemen aurrean, lehenbizi ikastetxeetan eta, bigarrenik, senideen eta lagunen artean bilatzen dute laguntza.
- Familia-gatazken arrazoi ohikoenen artean daude konektatuta igarotzen den denbora (%58) eta Interneten, mugikorrarekin eta beste gailu batzuekin pasatzen dena (%35).
- %33k ez die uzten ordenagailu edo mugikor bateko kamera erabiltzen, eta %30ek debekatu egiten die bideoak, argazkiak edo online musika partekatzea.
- %35ek webguneetako edukia blokeatzeko edo iragazteko gurasoen programak erabiltzen ditu, eta % 29k jardueren jarraipena.

Neurri murriztaile horiez gain, ikerketak nabarmentzen du gurasoek gutxien erabiltzen dituzten estrategia gaitzaileak seme-alabekin jarduerak partekatzea (%23) eta sareetan gauzak aurkitu eta ikastera animatzea direla (%27). Gainera, gurasoek ez diete aholkurik

eskatzen nola jokatu behar duten jakiterako orduan (%16), ezta kudeatu ezin dituzten online egoerei nola aurre ez dakitenean (% 18) ere. %12k bakarrik onartzen dute online jarrera negatiboari buruz hitz egiten dutela. Horregatik, garrantzitsua da **gurasoek seme-alabei laguntzea, entzutea eta aholku ematea** Internet erabiltzen dutenean. Izan ere, beti da hobe hezteko eta laguntzeko debekatzea baino. Youtuber berri bat aurkitu edo Tik Tok erronka bat probatu nahi dutenean, komeni da hura ezagutzea, arreta jartzea eta haiekin hitz egitea dituzten jakinminak ulertzeko.

Familiei hezkuntza eta hazkuntza digitalean laguntzeko, jarraibide hauek proposatzen ditugu:

1. Lagundu eta partekatu pantaila aurreko uneak familia giroan.

Belaunaldien arteko oztopoak gainditzeko, bertan egoteko, ikasteko eta loturak sortzeko aukera ematen dizu.

2. Entzun, egiten dutenaren gainean arreta jarri, ez izan aurreiritzirik eta enpatizatu.

Mundua asko aldatu da, saiatu ulertzen.

3. Izan zaitez influencer positiboa, betiere eredu ona eskainiz.

Izan zaitez praktika onen, jokabide egokien eta balio zentzudunen eredu.

4. Teknologia digitalen erabilera kontzientea eta kritikoa sustatu.

Zer, nola eta zertarako erabiltzen dituzten galdetu.

5. Erabilera alternatiboak eta sormena sustatu.

Interneteko aukera berriak ezagutu, gaitasunak garatu eta kezkek piztu.

6. Probatu, arriskatu eta esperimentatu lehen pertsonan.

Aztertu beharreko aukerez betetako ingurune aldakorra da.

7. Pentsatu nola hobetu teknologien eragina zure seme-alabengan.

Hobetzeko prozesu batean, hobekuntzak behatu, identifikatu, neurriak proposatu eta lorpenak neurtu etengabe.

8. Mugikorrek alde batera uzteko une eta muga argiak ezarri.

Gehiegizko erabileraren kontzientzia hartzeko eta deskonexioaren egokitasunari balioa emateko aukera paregabea da.

9. Eguneratuta mantendu, bilatu familiari laguntzeko behar duzun informazioa.

Sare sozial berriari edo bideojokoei buruz gehiago jakiteak kontrola ematen dizu eta konfiantza sortzen du.

10. Garatu bizitza digitalerako trebetasunak zure seme-alabekin.

Online bizitza enpatia, pentsamendu kritikoa eta emozio eta bulkaden kudeaketa eskatzen ditu bereziki.

[BCSCK](#) ingurune seguruaren alde egiten du, baita familia-eremuan ere; horregatik, garrantzitsua da gurasoek adingabeen eta Interneten arteko harremana modu positiboan

babestu eta bultzatzea. Hala, arrisku digitalen berri izango dute gurasoek eta mehatxuei aurrea hartu ahal izango diete, beren seme-alabek gailuetan erabili ohi duten edukia zentsuratu gabe. **Etorkizunean eskertuko duten beharrezko laguntza.**